



SANTIO JAIAK

VILLABONA UZTAILA 2010

20 10



ANDONI MOSQUEIRA MARTIN



Villabonako Udala

ALKATEAREN AGURRA

Hemen ditugu beste behin ere herriko jaiak. Oso zapore txarrarekin amaitu genituen joan zirenak. Remiren heriotzak herri guztiaren bazterrak hunkitu zituen. Guk urte oso berezia bizitu dugu Udalean, bere ausentzia hain handia izanda. Hainbeste botatzen dugu faltan. Eta bagenekien modu batera edo bestera une hau iritsiko zela eta 2010 urteko Santio jaiak ekin beharko geniola eta hemen ditugu. Urtean zeharreko neke eta tristurak albo batera utzi eta ondo pasa eta gozatzeko tenorea da oraingoa, horixe da gehien desio dudana, herritarren parte-hartzea, alaitsu eta umoretsu, herriko jaiak bizitzeko eta gozatzeko baitira! Horixe zen Remiren helburua, eta hori bermatu nahian joan zen gure artetik.

2010 urteari dagokion egitaraua prestatzeko lanean jardun duten eragile guztiak eskertu nahi ditut. Modu batera zein bestera urtean zehar Amasa-Villabona egiten jarduten duten eragile zein norbanako guztiak eskertu behar ditut. Eta banan-bana ezinezkoa zaidanez, haiei guztiak nire eskerrak eman nahi dizkiet, oso gertutik jaso baitugu haien babesa eta konfiantza aldioro.

Garai gogorak bizi ditu gure herriak, ezin uka. Baina itxaropenari leihoak zabal zabalik ditugu. Errealitatea gordina da zinez. Baina Euskal Herriak bere etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeko eskumena duela zinez pentsatzen dugunok etengabe esperantzari leihoak irekitzen jarraituko dugu. Herri eta nazio handi baten moduan Europar estatu moduan kokatzeko.

Amaitze aldera, gogoan izan nahi dut ekainaren 24an zendu zen Mikel Zalakain iheslari politikoa, 23 Villabonatik kanpo, deserrian, ez du bere sorterrira bizirik ikusteko aukerarik izan. Gogoan gaixorik daudenak eta oso gogoan jaiak ospatzerik ez duten oro. Preso eta iheslariak eta haien senideak. Jaiak bakean eta lasaitasunean bizitzeko eskubidea bermatzea dagokienei hala egiten uzteko deia egin beharra daukat. Pello, Julen, Emilio, Iñigo, Oskar, Joxe Mari, Eneko, Manex eta Mikel, pertsonak dira eta haien eskubideen jabe, gainera.

Modu berean, ikurrina jasaten ari den eraso ikusita jaietan etxeko balkoietan jartzeko gonbita egin nahi dizuet. Modu berean pertsona guztiek askatasun osoz festak ondo pasa eta disfrutatzeke aukera izatea eskatu nahi dut. Emakumeen aurkako indarkeria zantzurik ikusten bada, zutitu gaitezen eta salatu dezagun erasotzailea.

Besterik gabe, ondo pasa jaiak eta nire desiorik onena denentzat.

Maixabel Arrieta. Alkatea.

JAI BATZORDEAK

Uztailean murgiltzearekin batera, billabonatar orori irrika berezi bat sortzen zaio noiz iritsiko hilabeteko azken egunak, zehazki, Uztailearen 24. Heldu dira egun horiek, hemen ditugu herriko jaiak!!! Gora Santioak!!!

Urtero bezala jai batzordeak herritar oroengana pentsatuz burutu du egitaraua.

Jakina den arren, iaz bezala, 27an gogoeta eguna deitua dago, egoerak ez baitu uzten gustuko genukeen guztia burutzen. Hala ere, txikitxoentatik hasi eta helduenak arte bada makina joko, ekitaldi eta motibo ongi pasatzeko, izan ere ez ahaztu jaiak jendearen parte-hartzean oinarritzen direla eta horretan billabonatarrek zinez badakigula.

Honela, aurten berrikuntzei begiratu, patinen lasterketa izango dugu, Onddo gazte asanbladaren eskutik eskutik batelak izango ditugu herriko uretan, baltsa jetsiera ere ikustekoa izango delarik. Maiatzaren lehena plazan, aljibean, herriko tailerren erakusketa ez ahantzi, nola kanpoan burutuko den giza proba azken egunean. Loatzo musika eskolako bandak estreinakoz herriko plazan burutuko duen emanaldia ezin dugu galdu inork, ezta ere aurtengo konpartsa berezia!!

Beti bezala, futbitoko finala, danborrada, sokamuturra, xakea, musa, haurren ikuskizun zein jolasak, dantzariak, kontzertuak, aipamen berezia Eresargi abesbatzaren 25.urteurrena ospatzeko Mikel Urdangarin abeslariarekin egin duten lan berezia eta Oinkariren 35.urteurrena izaki egingo diren emanaldiak.


Ezin amaitu jai batzordearen agur hau bere partaide urteetan izan den Remi laguna gogoratu gabe, hutsune handia sumatu arren haren ekarpenak izugarri lagundu digulako lanerako, eskerak hiri Remi!

Ongi pasa guztiok herriko jaiak! Txintxo ibili....




- 09:00** **Plater Tiraketa** Izarren, "Loatzo Tiro" elkartearen eskutik
- 10:00** **Xake jokoa** Txistulari plazan, "Billabona Xake Joku" elkartearen eskutik
- 12:00** **TXUPINAZOA**, Eresargi Abesbatzaren eskutik, plazan
- 12:15** **"Iraunkorrek"** txaranga (Ondoren, txarangarekin denak bateletara)
- 12:30** **Batelak** (Villabonako Onddo gazte asanbladaren batela Anoetako gazteen batelaren aurka)
- 14:00** **Bazkari Herrikoia** plazan
- 16:30** **Frontenis** herriko txapelketaren finala Olaederra kiroldegiko frontoian, "Behar-Zana" elkartearen eskutik
- 17:00** **Pilota** Eskuz binakako herriko txapelketaren finala Olaederra kiroldegiko frontoian, "Behar-Zana" elkartearen eskutik
- 17:30** **Erraldoi eta buruhandien irteera** plazatik, Villabonako Loatzo Musika Eskolako trikitilariekin
- 19:00** **Futbito** finala plazan
- 23:00** **Danborrada** Remi Ayestaran ibilbidetik (lore eskaintza), "Iraunkorrek" txarangak lagunduta
- 00:00** **Dantzaldia** plazan "Kantuki" taldearekin

- 08:00** **Diana – Kalejira** Loatzo Musika Eskolako dultzaineroekin
- 09:00** **Sokamuturra** Olaederra kiroldegia ondoan, Loatzo Musika Eskolako dultzaineroek alaituta
- 10:30** **XXXX. Herri Krosa** Altzineko plazatik, "Zunbeltz" elkartearen eskutik
- 10:30** Benjaminak eta alebinak
- 11:30** Infantilak, kadeteak, jubenilak eta helduak.
- 11:00** **Gaurko eta betiko jolasak** Haurrentzako Jolasak: Jolas erraldoiak, ferixa jolasak, trebetasun eta oreka jolasak, malabareak, oreka barra, gogo-zikloak, ruloak. Eta **Haur txokoa** 5 urte baino txikiagoak diren umeentzat: psikomotrizitate elementuak, etxolak, txaletak, gimnasioak, din-danak, txirristak eta margotzeko gunea. Txistulari plazan
- 12:00** **Meza Nagusia** parrokian
- 12:00** **Oinargi** dantza taldea plazan
- 12:30** **Udal korporazioaren urteroko bisita Santiago egoitzara, Loatzo Musika Eskolako txistulariekin lagunduta**
- 13:15** **Loatzo Musika Eskolako banda** emanaldia plazan



EUSKAL JAIA PLAZAN:

- 17:00 **Donostiako (alde zaharra) Joaldunak** herrian zehar
- 17:30 **Soka Dantza** Errebote plazan, "Oinkari" dantza taldearen eskutik
- 18:00 **Sagardo eta pintxo dastaketa**
- 18:30 **Erromeria** "Izer eta Alabier"
- 21:00 **Afaria:** Bildotsa burruntzian
- 23:00 **Afaria alaitzeko** "Isk&bila" txaranga
- 00:00 **Korrontzi + Oinkari**
- 01:30 **Erromeria: "Kupela" taldea**



- 08:00 **Diana Kalejira** Loatzo Musika Eskolako dultzaineroekin
- 10:30 **Haurrentzako tailerrak:** eskulan tailerrak, aurpegi margotzea, ile apaindegia, pinpilinpauxak, globoflexia, maskarak, txapak, artilezko kometak... Txistulari plazan
- 11:00 **KONPARTSA** herrikoia
- 11:30 **Villabonako Errebote Txapelketaren finala** "Behar-Zana" elkartearen eskutik
- 14:00 Konpartsaren bazkaria Txermingo ikastola azpian
- 17:00 **ERRALDOI ETA BURUHANDIAK** plazatik, Villabonako Loatzo Musika Eskolako trikitilariekin
- 18:00 **Konpartsa** irteera Txermingo ikastolatik
- 18:30 **Konpartsa herrikoia**ren emanaldia plazan
- 22:30 **Mikel Urdangarin eta Eresargi Abesbatza** plazan
- 00:00 Dantzaldia plazan **Bide Batez** taldearekin



- 11:00** **Mural margoketa**, polikiroldegiaren atzealdean, "pintura tailerra egiten dutenen eskutik. Grafiteroak, haurrentzako txokoa...
- 12:30** **Kuadrillarteko baltsa jaitsiera Zubimuxutik, Onddo gazte asanbladaren eskutik (bakoitzak prestatutako "ontziarekin")**
- 14:30** **BAZKARIA** Berdura plazan Onddo gazte asanbladak antolatua.
- 17:00** **Orkresta Nazional** taldearekin poteo kalejira ondoren afari merienda
- 18:00** **Potxin eta Patxin** pailazoak. "Kresalaren usaina". Arroako plazan
- 18:00** **Joko Garbi partiduak**. Kadeteak Villabona - Oiarpe Oiartzun eta seniorrak Villabona Iparraldeko pilotariak
- 19:00** **Erraldoi eta Buruhandiak** Loatzo Musika Eskolako trikitilariekin, Remi Ayestaran etorbidetik
- 19:30** **Txekor jatea eta Sagardo dastaketa** Txermingo Ikastolaren azpian, Zumbeltz elkartearen eskutik
- 22:00** **Jubilatuentzat kafe eta likore dastaketa** Marie Brizarden eskutik, musikaz alaiturik Txermingo plazan Iñaxio Maria Ayastui-rekin
- 22:30** **Kontzertua** plazan: **Lain, Sexty Sexers eta Esne Beltza**



- 11:00** Biltoki Jubilatue taldearen eta Santiago Egoitzako aiton-amonen **Eskularen erakusketa** Berdura plazan
- 11:30** **Haur jaialdia: Apar festa** Arroan
- 12:00** **Herriko tailerren erakusketa** Maiatzaren Lehena plazan, eskulan, egur lanketa eta pintura lanen erakusketa
- 12:00** **Meza Nagusia** herriko parrokian
- 14:00** Jubilatuentzako **Bazkaria** Txermingo ikastolaren azpian, ondoren Txema & Cristinarekin dantzaldia
- 16:00** **Mus txapelketa** herrikoia Berdura plazan



- 16:00 Txirrindulari lasterketa** Irrintzi elkartearen eskutik. Irteera eta helmuga Eroski parean
- 17:00 ERRALDOI ETA BURUHANDIAK** Villabonako Loatzo Musika Eskolako dultzaineroekin. plazatik
- 18:00** Haurrentzako **Euskaraokea** Arroan
- 18:00 Palaz Binakako** Herriko txapelketaren finala Bearzana pilotalekuan, "Behar-Zana" elkartearen eskutik
- 18:30 Pilota Eskuz Binakako** afizionatuen finala Bearzana pilotalekuan, "Behar-Zana" elkartearen eskutik
- 19:30 Antzerkia: Prest Gaude!** Azpeitiko Lakrikun antzerki taldea. Gurea Antzokian, "Hutsunea Betez" en eskutik
- 20:00 Oihan Vegarekin disko festa** plazan
- 22:00 Oinkari Dantza Eskolaren Emanaldia** Olaederra kiroldegian
- 00:00 Oihan Vegarekin disko festa** plazan



IRRISTAKETA LASTERKETA HERRIKOIA EROSKITIK ARRATZAIN IRRISTAKETA TALDEAK ANTOLATUA

- 10:30** 1,5 Km ibilbidea umeentzat
- 11:00** 7 Km. ibilbidea helduentzat
- 13:00 ERRALDOI ETA BURUHANDIAK** kalejiran plazatik Etxeondoraino, Villabonako Loatzo Musika Eskolako trikitilariekin
- 14:30 Kuadrillarteko bazkaria** Etxeondon. Ondoren, **kalejira "Incansables"** txarangarekin
- 20:00 Dantzaldia** plazan **Triki ta ke** taldearekin
- 22:00 Bertsolariak** Arroan "Zunbeltz" elkartearen eskutik
- Onintza Enbeita • Uxue Alberdi • Oihana Bartra • Ainhoa Agirreazaldegia • Estitxu Eizagirre • Oihana Iguaran
Gai Jartzailea: Amaia Agirre
- 00:00 Zezen-suzkoa** plazan
- 00:00 Dantzaldia** plazan **Triki ta ke** taldearekin



- 08:00 Diana kalejira** Loatzo Musika Eskolako dultzaineroekin
- 09:00 Sokamuturra** Olaederra kiroldegaren ondoan, Loatzo Musika Eskolako dultzaineroek alaituta
- 10:15 Haurrentzako sokamuturra** Olaederra kiroldegaren ondoan, Loatzo Musika Eskolako dultzaineroek alaituta
- 11:00 Errebotea** plazan: Hazparne – Villabona
- 11:30 Haur jolas parkeak** Txistularien plazan (ludoteka puzgarria, climbing, bale tripontzia, tower surf taula, kart pista eta tren txu txua)
- 12:15 “Atari Bizi”** lehiaketaren sari banaketa plazan
- 12:30 Gazte Mailako II. dantza suelto txapelketa** plazan
- 17:00 Haur jolas parkeak** Txistularien plazan (ludoteka puzgarria, climbing, bale tripontzia, tower surf taula, kart pista eta tren txu txua)
- 16:00 I San Ignacio Giza Proba** Maiatzaren Lehena plazan
- 20:00 Remiri I. urteurreneko** Omenaldia, “Remi Gogoan” ekimenaren eskutik, bere izena daraman ibilbidean

MOZORRO GAUA

- 23:30** Onddo gazte asanblada **Batukadaren** irteera
- 00:00 Erroskilaren errausketa** Onddo gazte asanbladaren eskutik
- 00:30** Dantzaldia plazan **Los Zopilotes Txirriaus**

ONDOREN DJ GATXET TXOZNA GUNEAN



JAI EGUNETATIKANPO

- Uztailaren 10ean, larunbata, goizeko 9:00etan, **San Hu- berto XII. txakur lehiaketa** egingo da Belabieta mendian, "Behar-Zana" elkartearen eskutik.
- Uztailaren 18an, igandea, **Pablo Lasaren omenez XXXII. uso-tiro txapelketa irekita** izango da Otelarreko Izarre zelaian 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara, "Behar-Zana" elkartearen eskutik.

EGURALDI TXARRA EGINEZ GERO

- Uztailaren 24ko pilota eta frontenis finalak **Bearzana pilotalekuan** egingo lirakeke.
- Uztailaren 24ko bazkari herrikoa, uztailaren 25eko Euskal Jaia, uztailaren 29ko Apar Festa, eta uztailaren 30eko koadrilen bazkaria **Txermingo ikastola azpian** egingo lirakeke.
- Gainontzeko ekitaldi guztiak **Olaederra kiroldegian** izango lirakeke (haur jaialdiak, uztailaren 25eko musika banda, uztailaren 29ko mus txapelketa, uztailaren 29ko dantza emanaldia, euskaraokea, uztailaren 30eko bertsolariak, eta abar).
- Uztailaren 25eko gaurko eta betiko jolasak **frontoian** izango lirakeke.
- Uztailaren 25eko Oinargiren emanaldia, Atari Bizi sari bana- keta eta dantza suelto txapelketa **zinean** egingo lirakeke.

24KO HERRI BAZKARIA

- 24ko herri bazkarirako Udal bulegoetan kuadrillaren ize- na eta pertsona kopurua eman beharko da aurreko urte-

ko arazoak ekiditearren, izen ematearagatik 23ra udal bule- goetan.

TXIRRINDULARI LASTERKETA

- Izen ematea arratsaldeko 15:15etatik aurrera Eroski pare- an egin daiteke.
- Kaskoa beharrezkoa da.
- Aurten ez dira sailkapenak egingo, saririk ez da banatuko ondorioz. Hala ere urtero bezala partehartzaile bakoitzak oroigarri bat jasoko du eta zozketarako zenbaki bat izan- go du.

HERRI KROSA

- Izen ematea uztailaren 25ean bertan, goizeko 10:00etatik aurrera "Zunbeltz" elkartearen.

EUSKALJAIA

- Afarirako txartelak salgai (25 euro) honako leku hauetan: Amasa, Kixubi, Larrea, Labezain eta Ogi Goxo okindegie- tan, Shepherds garagardotegian, Iturrigoxo jatetxean, Iratzar, Erreka, Iru Aldeta, Itzalpe, Arnasa eta O' baba ta- bernetan, eta Garmendia harategian.

PATINEN LASTERKETA

- Lasterketan parte hartzeko izen ematea goizeko 10:00etan izango da Eroski parean.

KOADRILEN BAZKARIA

- Izen ematea uztailaren 21etik 28a arte, 14:00ak arte (beti goizez) Udaleko bulego orokorrean.
- Eguraldiaren arabera bazkaria Etxeondoko parkean edo Txermingo ikastola azpian izango da. Erabakia hartzeko, koadrilei uztailaren 30ean, goizeko 11:30ean udaletxeko arkupean egoteko eskatzen zaie.
- Aulkiak eta mahaiak eguerdiko 13:00 banatuko dira, eta izen ematearen ordena berean. Hau da, Etxeondo parkera ezingo da lehenago joan leku egokienak hartzeko asmo- tan.
- Udalak zabor poltsak eta edukiontziak jarriko ditu ingu- ruan, bakoitzak bere zaborra dagokion lekuan utzi dezan. Komunak ere jarriko ditu. Guztion parkea da eta saia gait- zen txukun mantentzen!!!

KOMUNAK

- Udaletxearen alboko komun publikoak egunez irekita egongo dira. Jai egun guztietarako Udalak komun kimiko- ak alokatu ditu. Erreboteko plazan egongo dira jarrita. Ko- adrilen bazkariko egunean ere komun kimikoak jarriko dira Etxeondon. Komunak behar den bezala erabiltzen eta ka- lea garbi mantentzen saia gaitzen !!!

BARRAKAK

- Aurten, iaz bezala, barraketan ibiltzeko salneurria 1,5 € izango da (8 bidai, 10 €). Dena dela, egun berezia bezala, uztailaren 29an, osteguna, prezioa 1 € izango da (6 bidai, 5 €).

BANDERAK

- Aurten ere ezarri nahi diguten espaniar banderaren inpo- saketari uko egiten diogu, guretzat arrotza delako. Hori dela eta, Euskal Herriaren aniztasuna errespetatuz eta gu- re historiari nahiz gaur egungoari diogun begiruneagatik, herriko banderarekin batera, ikurrina eta Nafarroako Errei- nua izan zenaren bandera jarriko ditugu udaletxeko bal- koian.

ERAKUSKETA

Villabonako kultur tailerren lanak ikusgai
Uztailak 24tik uztailak 29ra
Aljibean (Maiatzaren lehena plazan)
Goizeko 12:00etatik 14:00etara
Arratsaldean 17:00etatik 20:00etara
29an 12:00etatik 20:00etara:
tailerretan egin diren lanak kalera
aterako ditugu herritar orok ikusteko



Uztaila

Villabona

2010

antio

aiaak